

‘Deportivity’ programak baloreak sustatuko ditu oinarrizko futbolaren kirol ingurune osoan

Aurrez aurreko tailerrak eta online tresnak izango ditu, eta helburua laguntasuna, zintzotasuna nahiz sakrifizioa sustatzea eta indarkeriazko portaerak saihestea izango da

Vitoria-Gasteiz, 2022ko irailaren 23a. Vital Fundazioak, Arabako Foru Aldundiak, Kirolaren Euskal Eskolak eta Arabako Futbol Federazioak bat egin dute oinarrizko futboleko balioak sustatzeko ekimen berri bat abian jartzeko: sakrifizioa, entrega, laguntasuna, zintzotasuna... Kadete mailako lehiaketara bideratua, programak hiru zutabe nagusi ditu eraginkorra izateko: prestakuntza, ebaluazioa eta esku-hartzea. Aurreikuspenen arabera, 2.000 pertsonak baino gehiagok hartuko dute parte zuzenean eta zeharka.

Vital Fundazioko zuzendari Arantxa Ibañez de Opacuak, Kultura eta Kiroletako foru diputatu Ana del Valek, Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendari Gorka Iturriagak, Arabako Futbol Federazioko presidente Kepa Arrietak eta Gesto Deportivo erakundeko zuzendari Alfredo Saenzek aurkeztu dute ‘Deportivity’ ekimena.

Kiroltasunaren bidez garapen pertsonala lortzeko eta oinarrizko futboleko indarkeria saihesteko, lehenengo fasea prebentzioari buruzkoa izango da. Aurrez aurreko tailerren bidez, Gesto Deportivo erakundearen eskutik eta *app* bat erabiliz, kirolariak, entrenatzaileak nahiz kirol-ingurune osoa baloreetan heziko dira, eta jokalarien gurasoak ere inplikatu dira.

Guztira, 2.000 pertsonak baino gehiagok hartuko dute parte programan, zuzenean edo zeharka: 64 kadete talde, 1024 jokalaria, 64 entrenatzaile eta ehunka guraso eta tutore.

Nola erabiltzen da Deportivity?

Denboraldiko partida bakoitzaren ondoren, entrenatzaileak eta epaileak izango dira puntuazio-sistema baten bidez ikusitako kiroltasun-maila *app*-an kalifikatu eta erregistratzeaz arduratuko diren eragileak, eta ezin izango dute inoiz autoebaluaziorik egin. Horrela, puntuazio-ranking bat osatzen da klub bakoitzaren kirolaren berezko balioetan oinarrituta.

Rankingeko azken postuetan agertzen diren eragileek (programan eta haren inguruneetan parte hartzen dutenek), hau da, gainerako eragileen aldetik puntuazio txikiagoa lortzen dutenek, **prebentzioko lehen tailer bat** jasoko dute. Era berean, partiduren batean kiroltasun-faltak edo jokabide desegokiak hautematen badira, programan **esku hartzeko tailerrak** aurreikusten dira, inplikaturako eragilea hezi edo berrezteko.

Kirolaren balioei eta gainerako agenteen bizikidetzari eragiten dien jokabide errepikatua dagoen kasuetan, eta inplikaturako pertsonarekin elkarrizketa-fase bat izan ondoren, ‘Deportivity’ taldeak tailer baten bidez jardungo du zelaian bertan. Tailer hori benetako partida bat balitz bezala emango da, eta frustrazioarekiko, komunikazioarekiko eta kasu bakoitzean eragin berezia duen edozein alderdirekiko tolerantziaren garapena sustatuko da.

‘Deportivity’ hilabete honetan jarriko da martxan, eta 2023ko maiatzean kirol-denboraldia amaitu arte egongo da martxan. Kluben % 100ek dute deskargatuta aplikazioa euren gailuetan.